



kimu

PROIEKTUA

JAKINTZA

IKASTOLAN

LH 1-2-3

2



ZER

PROIEKTUA
JAKINTZA
IKASTOLAN

Lehen Hezkuntzako lehen ziklorako proiektua da.

Ikasleen hezkuntza prozesurako bitartekoak eta laguntza eskaintzen ditu.

Dokumentu honekin, proiektuaren oinarrian dagoen hezkuntza-ikuspegia eta proposamen didaktikoak garatzeko hartutako erabakiak azaldu nahi ditugu.

KIMU proiektua garatzerakoan zaindu dugu egitea...

3

DA?



1. Araudiak kontuan hartuz.
2. Psikopedagogiaren eta neurozientziaren ekarpenak aintzat hartuz.
3. Ikastolako hezkuntza proiektuari erantzuteko planifikazio malgua eta orientabideak planteatuz.
4. Nolako pertsonakhezi nahi ditugun hausnartuz.
5. Euskal curriculum eta konpetentzietan oinarritutako hezkuntza landuz.

PROIEKTUA
JAKINTZA
IKASTOLAN

4

NOLAKO PERTSONAK HEZI NAHI DITUGU?

Irakaskuntza-prozesua ikasleei begiratzetik eta ikasleengan pentsatzetik hasten da.

Nor diren eta nolakoak bakoitzaren onena indartzeko //
Nolako pertsonak hezi nahi ditugun gizartean egokitzeko eta hura
eraldatzeko.

Ipar horrek zentzua ematen dio gelako praktikari eta hainbat erabaki
hartzeko irizpidea ematen du.

Gure ikastolan ikasleen irteera-profila onartuta dugu eta bost ardatz
hauen inguruan kokaturik dago:

1. Euskara eta euskal kulturarekiko konprometitua eta euskaldun eleanitza.
2. Autoestimua eta doikuntza pertsonalarekin loturiko trebetasunak dituenak.
3. Ikaskuntzarekin eta ezagutzaren kudeaketarekin loturiko trebetasunak dituenak.
4. Elkarbizitza eta harreman sozialak errazten dituzten trebetasunak dituenak.
5. Garapen profesionala eta lan-mundura sarbidea errazten dituzten trebetasunak dituenak.

IKASKUNTZARI ETA IRAKASKUNTZARI BURUZKO PRINTZPIOAK

Askotariko ebidentziek erakusten dute ikasleen ikaskuntzan zerk eragiten duen:

Ikaslea da bere bizitzaren eta ikaskuntza-prozesuaren protagonista.

Testuinguruak eta giroak eragin handia dute ikaskuntzan.

Ezagutzak norberak eraikitzen ditu.

Ezagutzen baliagarritasuna eta funtzionalitatea ikusi egin behar dira.

Ikaskuntza esperientzia sozial eta kolaboratiboa da.

Atentzian eragiten dute aktibazio-mailak eta motibazioak.

PROIEKTUA
JAKINTZA
IKASTOLAN





ETA, BERAZ, IRAKASLE EDO IRAKASLE-TALDEAREN ESKU-HARTZEK NOLA ERAGITEN DUTEN IKASLEEK GEHIAGO ETA HOBETO IKAS DEZATEN.

Adinari dagokion haur teorikoa eta haur erreal bakoitzaezagutu, haren ongizatea prozesu osoan zainduz eta interesa eta jakin-mina sustatuz.

Testuingurua zaindu: giroa; irakasleon jarrerak eta ekintzak; denboraren kudeaketa. espazioaren antolaketa. materialen aurkezpena.

Ikaslearen errealitateak hurbil dauden egoeretatik edota euren bizipenetatik abiatu; manipulatiiboki hurbildu jakintzagai berrietara; jolastu.

Ikasleari ikasten eta nola ikasten duen ulertzen lagundu; aurreko ezagutzak errepasatuz, eduki berriak pausu txikietan aurkeztuz, modelatuz, galdera onak eginez, praktikan akonpainatuz, metakognizioa eta autoerregulazioa sustatuz.

Ikasitakoak inguratzen duen munduarekin erlazionatu; hura ulertzeko zein bertan eragiteko erabil ditzaten sustatuz; bai eremu pertsonalean, sozialean zein akademikoan.

Ikasleei taldekatzeko anitzetan jarduteko aukera eskaini; lan kooperatiborako estrategiak landuz eta ikerketarako eta ezagutza modu kolaboratiboan eraikitzeke testuinguruak sortuz.

Hemen eta orain egoteko proposamenak baliatu.

CURRICULUM-ANTOLAKETA

Nolako pertsonekin ari garen eta nolako pertsonak hezi nahi ditugun kontuan hartuta, ikaslea eta haren ikaskuntza erdigunean jarrita antolatu dugu curriculuma.



IKASKUNTZA- ETA IRAKASKUNTZA-PROZESUAK



GELAREN ANTOLAMENDU SOZIALA

Zeregin desberdinetarako eta helburu desberdinekin askotariko taldekatzeak erabili.

Talde handiko jarduerak

Gelako batzarretarako

Azalpenetarako

Arazoak planteatu eta ondorioak finkatzeko

Talde finko heterogeneoak

Talde kohesiorako eta berdinen arteko laguntza afektibo eta akademikorako

Erantzukizun pertsonalak eta taldeko erantzukizunak hartzeko

Talde malgu homogeneousak

Interes eta motibazio komunak dituztenei antolatzeke aukera emateko

Zailtasun-maila desberdinetako jarduerak gauzatzeko

Talde malgu heterogeneoak

Bereziki prozedurazko edukiak lantzeko, beraien artean elkarri laguntza emateko

Lan indibiduala

Ikasle bakoitzak bere ikaskuntza pertsonala antolatzeke

Bere gaitasunen neurriko jardueretan trebatuz (ikaskuntza pertsonalizatua) aurrera egiteko

10

ESPAZIOA(K)

diseinatzean zaindu honakoak:

Espazioaren ikuspegia zabala izatea, ohiko ikasgelatik haratagokoa.

Eskolako barrua nahiz kanpoa

Eskola ingurua

Ikuspegi fisiko nahiz emozionaletik seguruak diren giroak sortzea.

Erabilera malguak ahalbidetzea, askotariko konpetentziak garatzeko eta aniztasunaren arretari erantzuteko.

Mugimendua ahalbidetu taldekatzeetarako: biribila, U formakoa, talde txikiak...

Askotariko material, objektu eta tresnak erabili.

Irakasleek eta ikasleek kodiseinatzeko aukerak sustatu eta baliatzea.

Elementu bisualak, ikasleen lanak, dekorazioa...

DENBORAREN KUDEAKETA antolatzean zaindu honakoak:

Ikaskuntza-denborak zeren arabera antolatzen diren hausnartzea.

Kontuan hartzea ikasleen beharrak, askotariko zereginak eska ditzaketenak, ikasleen errendimenduan eragiten duten denborak, etab.

12

Ebaluazioaren ikuspegia

Ebaluazioaren ikuspegiak erabat baldintzatzen du ebaluazioa ez ezik, baita irakaskuntza-prozesuaren diseinua eta gauzatzea ere.

ZER EBALUATU NAHI DUGUN ARGI IZAN

Ikaslearen ikaskuntzaren progresioa, oinarrizko konpetentzien arabera.

A

Ikasleei ikaskuntza-helburuak partekatu (adinaren ezaugarrietara egokituz) eta haiek bere egin dituztela egiaztatu.

Ikaskuntza-helburu horiek lortzeko zertan arituko garen adierazi, ikasleak ikaskuntza- ibilbidean kokatzeko.

Ikasle batek ikasten ikasten duenean, berez, bere ikasketa-prozesuak autorregulatzen ikasten du.

RUIZ MARTIN, H. ¿Cómo aprendemos?

DATUAK JASO

B

Ikaslearen ikaskuntza-prozesu osoko datuak:
indarguneak eta zailtasunak identifikatuz.

Ikasle denen datuak eta ebidentziak jaso: momentu desberdinetan ikasleen partaidetza sustatzeko galderak eginez, ikaskuntza hitzez adieraz dezaten. Etab.

Ikasleen autoebaluazioa eta ikasleen arteko koebaluazioa bideratu, ikasleak jabetzeko ikaskuntza-prozesuaren hasierako egoeraz eta bere ikaskuntzaren progresioaz.

Akatsa ikasteko abiapuntua da.

SANMARTI, N, La evaluación en la escuela
que se renueva

DATUAK AZTERTU

C

Ikaskuntza-prozesuko partaide guztien (irakasle-taldea, ikaslea, familia, orientatzaileak) ekarpenak interpretatu.

Ikasleei *feedback*-a eta *feedforward*-a eman: zer pentsatu duen, nola aritu den, emaitza egokia den, zer egingo duen hobetzeko.

Irakasle-taldeak gelako errealitateaz hausnartu: irakasle bakoitzak autoebaluazioa, elkarren koebaluazioa.

Ebaluatzeak berekin dakarren edozein ekintzak lotutako balioak lantzea eskatzen du, hala nola kooperazioa, nork bere mugak gainditzeko nahia eta autoestimua (eta sortzen diren emozioak erregulatzen ikastea).

SANMARTI, N. La evaluación en la escuela que se renueva

D

ERABAKIAK HARTU

Erabakiak ikaskuntza-prozesua erregulatzeko badira eta nagusiki irakasleak hartzen baditu, ebaluazioa hezigarria izango da; erabakiak ikasleak hartzen baditu nagusiki, hezitzailea.

Erabakiak ikaskuntza-prozesuaren amaieran balorazioa egiteko badira eta helburua ikaskuntza-mailak bereiztea bada, ebaluazioa kalifikatzailea izango da.

Hartutako erabakiak zertarako, nori eta nola komunikatuko diren hausnartu eta egoki egitea zaindu.

Familiekin elkarlana

Ikasleen eta seme-alaben hezkuntzan

familiak

eskolak

eginkizun desberdinak izan arren, helburua bera dute: seme-alaben edo ikasleen garapen integrala eta sakona.

Oso garrantzitsua da familien eta eskolaren arteko elkarlana

Gelan gertatzen denak etxean jarraipena izatea, eta etxean gertatzen denak gelan.

- Ikastearen (zentzu zabalean) garrantzia azpimarratzea bizitzako eremu guztietan.
- Etxekoek eskolan egiten eta gertatzen denarekiko interesa agertzea.
- Ikaskideekin, irakasleekin eta hezitzaileekin dituzten harremanekiko interesa agertzea.

Eguneroko ekintzetan gelan ikasitakoak indartzea.

- Elkarrekin irakurtzea eta irakurketak partekatzea.
- Erosketak egiteko zerrendak eta kontuak egitea.
- Asteko menuak idaztea.
- Irteerak prestatzea.
- ...

Eskolan eta etxean lan-ohiturak mantentzea.

- Errutinak zehaztea.
- Egitekoak planifikatzea.
- Materiala ordenatzea.
- ...

Elkarlanerako komunikazio-espazioak sortu behar dira eta elkarri konfiantza eman.

Irakaslearen eta irakasle-taldearen ezaugarriak

Ikasleei begiratu, zein diren eta nolakoak diren; eta norbera bere ikaskuntza-prozesuaren protagonista izan dadin lan egin.

Parte hartu nolako pertsonak hezi nahi ditugun zehazteko eskolako hausnarketan eta adostutakoak aintzat hartu eguneroko jardunean.

Kontuan hartu irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetako oinarritzko printzipioak eta horien arabera esku-hartu.

Galdera hau egin: *Zer egingo dut eta dugu ikasle hauek zehaztutako ezaugarriak dituzten pertsonak izan daitezen, oinarritzko kompetentziak gara ditzaten eta hobeto ikas dezaten?*

Irakasle-taldean kooperatiboki lan egin, irakasle taldeak ekintza- eta hausnarketa-taldeak direla jakinik.

Partekatu

- ezagutzak eta esperientziak

Adostu

- helburuak eta ebaluazio-irizpideak
- hori lortzeko egingo den planifikazioa...

Hausnartu

- Egindakoa eta lortutakoa ebaluatu.
- Erregulatu *Zer mantenduko dugu? Zer hobetuko? Egiten ez genuen zer egingo?*

Dokumentatu

- Prozesua

Familiekin eta familia bakoitzarekin elkarlana ahalik eta emankorra izan dadin konfiantzazko giroa sustatu; komunikaziorako gune eta uneak diseinatu eta erabili.

Hezkuntza-komunitatea osatzen duten gainerako kideekin eta inguruko gizarte eragileekin harremana sustatu; ikaskuntzak errealitatean kokatzeko eta errealitatean eragiteko.

Ikasteko eta elkarrekin ikasteko grina partekatu ikasleekin, kideekin, familiekin eta hezkuntza-komunitateko eragileekin.

PROIEKTUA
JAKINTZA
IKASTOLAN

Zergatik erronka, euskara eta literatura eta matematika?

Erronka

Errealitate hurbileko egoeretan kokatzen dute ikaskuntza.

Oinarrizko konpetentzia orokorren edo metadiziplinarren lanketa egituratua ahalbidetzen dute.

Oinarrizko konpetentzia espezifikoak edo diziplina baitakoak integratzeko aukera eskaintzen dute.

Ikasitakoekin errealitate hurbilean eragitea sustatzen dute, hura hobetzeko.

Edukiak ikuspegi globalizatu batetik aurkezteko eta erabiltzeko aukera ematen dute, ez zatikatuta.

Euskara eta literatura

Matematika

Beste oinarrizko konpetentzietan eragiten duten konpetentzia espezifiko edo diziplina baitakoak garatzeko aukera eskaintzen dute.

Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia

Matematikarako konpetentzia

Ikasten jarraitzeko eta LHko 1. zikloko ikaste-helburu zehatzetarako bitartekoak eskaintzen dituzte.

irakurketa eta idazketa prozesuak

oinarrizko prozedura matematikoak

**SEGURU
SENTITZEN
DEN HAURRA
+ BERE
BURUAN
KONFIDANTZA
DUEN
HAURRA +
BABESTUA
SENTITZEN
DEN HAURRA
= HAUR
ZORIONTSUA**

